

---

# 2017

# Etxerat

Euskal  
Preso eta Iheslari  
Politikoen  
**Senide eta Lagunen  
Elkartea**

## Urteko txostena

## Sarrera

2017ko urtea oso gogorra izan da euskal preso politikoen senide eta lagunentzat. Ahalik eta modu ilunenean hasi zen : urtarrilaren 15ean, **Sara Majarenas** euskal preso politikoren alaba, bere familia-egoitzatik 540 kilometrora, Picassent-en, bere amaren alboan espetxeratua eta urrundua zegoena, larriki zauritu zuen bere aitak, genero-indarkeriazko pasarte batean.

Gertaera ama-alabentzat, eta bereziki alabarentzat, oso traumatikoa izan bazen ere, eta azkenean espetxeko agintariak espetxea beste zentro batez ordezkatu bazuten ere, amaren eta haurraren mugimenduak kontrolatzen jarraitzen dute eta urruntze zigorrari eusten diote. Gure ustetan Sara eta Izar haien etxean, libre, egon beharko lirateke lehenbailehen eta hori lortzeko lanean jarraituko dugu tinkotasunez.

Drama horrez gain, urtean zehar, hiru alditan gauzatu zen euskal preso eta iheslari politikoen senide eta lagun beldur handiena. Uztailaren 31n, **Kepa del Hoyo** preso politiko galdakoztarra hil zela espetxean jakin genuen, bihotzekoak jota antza denez. 46 urte zituen Kepak, 1998an izan zen atxilotua eta hil zen Badajozeko espetxean, familia-egoitzatik 750 kilometrora. 19 urteko espetxe eta urruntze zigorra betea zuen.

Azaroaren 16an, espetxe arinduaren erregimenean zegoen Lazkaoko **Belen Gonzalez Peñalva** hil zen Donostiako Onkologiko institutoan. 59 urte zituen Belenek. 1999n atxilotua izan zen Frantziar estatuan, eta 2009tik zegoen etxean preso, pairatzen zuen minbizi larriagatik.

Bi egun ondoren, azaroaren 18an, beste hilotz baten berri jaso genuen, hau da **Javier Perez de Nanclares** iheslari politiko gasteiztarrarena. Javier 19 urte zituelarik bere herritik ihes egiteko behartua izan zen. 1982an Ipar Euskal Herrira itzuli ondoren, bi urtez preso egon zen Estatu frantsesean. Ondotik Mexikora joan zen. Han hil da 59 urtetan, bihotzekoa dela eta.

Berriro diogu, ezin dugu gehiago itxaron. Jakitun gara Euskal Herriko instituzio zein eragile politiko, sindikal eta sozialek baldintzak sortzen ari direla, behingoz preso eta iheslarien aferari behin betiko konponbidea emateko asmoz zentzuzko epe eta denbora egingarrian. Garaia da, euskal gizarteak ezin baitu beste bizitza bat utzi konponbidearen bidean.



# 1. DISPERTSIOAREN DATUAK

## 1. 1 Urri-azaro-abenduko datuak

laz bezala, euskal preso politikoen kopurua apaldu bada ere, (2016 bukaeran 348 euskal preso politiko baziren ere 69 espetxeetan dispertsatuak, azpimarratu behar dugu askatasun horien gehiengo zabala kondena bukaerengatik gertatu dela –eta kasu gehienetan oso kondena luzeak). Nabarmendu behar da hala ere espetheen zenbakia ez dela txikitu, ezta ere bisitak egiteko batz bestea egin behar den kilometroen kopurua.

### 303 EUSKAL PRESO POLITIKO

- ◆ **298** EUSKAL PRESO POLITIKO **64** ESPETXEETAN DISPERTSATUAK
- ◆ **2** euskal preso politiko Euskal Herriko 2 espetxetan
- ◆ **34** euskal preso politiko Espainiar estatuko 41 espetxetan
- ◆ **61** euskal preso politiko Frantziar estatuko 21 espetxetan
- ◆ Euskal preso politiko **1** Portugalen
- ◆ **2** euskal preso politiko gaixo larri espetxe arinduan
  
- ◆ **2** adingabeko euren amekin dispertsatuak

## 1.2 Trasladoak

2017 urtean, 32 traslado izan ziren :

- ◆ **14** estatu espainiarrean
- ◆ **13** estatu frantsesean
- ◆ **1** estatu frantsesetik estatu espainolera
- ◆ **2** estatu espainoletik estatu frantsesera
- ◆ **2** beste herrietan (1 Alemaniatik Espainiara, 1 Alemaniatik Frantziara)

Urte bukaeran, iaz bezala, 2 euskal preso bakarrik Euskal Herriko presondegitan zeuden, biak larriki eri eta kideengandik isolatuak.

Horra urri-azaro-abenduko lekualdaketak:

- ◆ Urriak 11 - **Liher Aretxabaleta** Soto del Real-etik Ocaña I-eko espetxera (520 km)
- ◆ Urriak 25 - **Aitziber Coello** Foncalent-etik Picassent-eko espetxera (563 km) lekuakdatua izan da ama izan ostean
- ◆ Azaroak 9 - **Jose Javier Osés** Fleury-tik Mont-de-Marsan-era
- ◆ Azaroak 21 - **Iratxe Sorzabal** Fresnesgo espetxetik Reau Sud Francilien presondegira (930 km)
- ◆ Azaroak 27 - **Asier Aginako** Foncalent-etik Valentzia III-ra
- ◆ Abenduak 13an - **Jon Etxeberria** Uzerche-tik Soto del Real-era
- ◆ Abenduak 15ean - **Mikel Barrios** Berlin-etik Osny-ra
- ◆ Abenduak 22 - **Iñigo Gulina** Berlin-etik Soto del Real-era
- ◆ Abenduak 24 - **Mikel Otegi** Ocaña-tik Valdemoro-ra
- ◆ Abenduak 28 - **Bea Etxeberria** Jaen-etik Aranjuez-era

### 1.3 Urri-azaro-abenduko askatasunak

- ◆ Urriak 4 - **Jose Miguel Gaztelu**, Bergara - Algeciras-eko espetxetik - 20 urteren ondoren
- ◆ Urriak 19 - **Aratz Gomez**, Azkaine - Mont-de-Marsan-etik - 18 urte
- ◆ Urriak 21 - **Arkaitz Saez**, Hiriburu - Mont-de-Marsan-etik - 18 urte
- ◆ Urriak 21 - **Oier Iburguren**, Donostia - Fresnes-tik atera eta Barajas-eko aireportuan utzi zute - 4 urte
- ◆ Urriak 27 - **Zuhaitz Errasti**, Aretxabaleta - Mont-de-Marsan eta Soto del Real-etik - 8 urteren ondoren
- ◆ Azaroak 4 - **Sebas Prieto**, Bilbo - Teixeiro (A Coruña)-tik - 23 urte
- ◆ Azaroak 12 - **Iñaki Imaz**, Donostia - Ocaña II-tik - 5 urte
- ◆ Azaroak 14 - **Ekhiñe Eizagirre**, Zarautz - Soto del Real-eko espetxetik, baldintzapeko askatasunean Fresnes-etik espainiaratu ondoren - 4 urte eta erdi

- ◆ Azaroak 27 - **Andoni Goikoetxea**, Gaztelu - Fleury eta Barajas-etik - 4 urte eta erdi
- ◆ Abenduak 2 - **Peio Eskisabel**, Lasarte - Uzerche eta La Junquera - 12 urte
- ◆ Abenduak 20 - **Premin Sanpedro**, Arrasate - Jaen-etik --17 urte
- ◆ Abenduak 20 - **Txus Goikoetxea**, Nafarroa/Arrasate - Sevilla Iltik - 17 urte
- ◆ Abenduak 28 - **Txema Matanzas**, Santurtzi - Puerto III-tik - 10 urte

## 2. OSASUN ESKUBIDEA

Espetxeetako baldintzek, etengabeko tensioak eta kondenen luzapenak osasun arazo asko sortzen dizkiete presoeri. Jadanik eri zirenak erabat sendatzea ezinezkoa dute, eta osasun ona zutenek patologia ezberdinak garatzen dituzte. Garbiketa eta janari arazoak, segipen eskasa, konfiantzazko medikuak ikusteko debekua, etengabeko trasladoak, oztopo izugarriak dira eremu honetan senide, abokatu eta presoak jarraitzen dituzten profesionalentzat. Horrez gain, euskal presoeri aplikatzen zaizkien segurtasun neurri bereziek segipena eta tratamendua are gehiago zailtzen dituzte, kanpoko kontsultak atzeratuz edota galaraziz. Salatzen ditugun eskubideen urraketa guztiak oso larriak dira, baina eremu honetan muturreko egoetara eramaten gaituzte, oinaze handia sortuz.

Aurten bereziki krudela izan da gobernu espainiarraren erantzuna hainbeste sufrimendua ekartzen duen eremu honetan. 2017ko martxoan, Espetxe Zaintzak I-3/2017 instrukzio berria zabaldu zuen karteletan, gaixorik diren presoek askatasun eskaeren tratamendua are gehiago murriztuz: larri gaixo diren preso politikoak soilik kaleratuak izango direla beraien bizitza arriskuan dagoenean. Askatze horiek soilik onartuko zirela «heriotza aurreikusten den egoera bat denean, bi hilabeteko epe batetik behera eta ziurtasun handia dagoenean” erantzun zion Juan Ignacio Zoido Espainiako Barne Ministroak neurri krudela horretaz galdegin zion EH Bilduko senataria Jon Iñarritu-ri 2017ko apirilaren 11n, EH Bilduk preso gaixo larrien inguruan mozio bat aurkeztu zuen Espainiar Kongresuan: gehiengoaren eskutik, PP, PSOE eta C's alderdien 244 diputatuak bozkekin, mendekuaren eta immobilismoaren aldeko apustua sendotu

zuen espainiar Gobernuak, EH Bilduk aurkeztutako mozioa alboratuz. Bertan, autoritate espainiarrei “preso gaixo larrien egoeraren erabakien aurrean egungo legediak, estatuko zein Europakoak, aintzat hartzea eta, honek, hurrengo datetan presoek askatasuna bideratzeko jarduna” eskatzen zuen. Ekimen honek 92 diputatuen babesak jaso zuen eta 3k abstentziora jo zuten.

Gure balorazioak ez zuen interpretazio ezberdinetarako lekurik utzi nahi izan: espainiar Gobernuaren borondatea mina eragitea da. Min fisikoa, gaixotasun larria sufritzen dutenei. Mina, euren gaixotasunari aurre egiteko tratamendu medikua ukatzean. Mina, gaixotasuna fase terminalean dutenek Minaren Unitate edo zainketa aringarritara joateko aukerarik ez izatean. Eta min psikologikoa, euren gaitzari erantsitako sufrimendua dela eta, buruko gaixotasun larriak sufritzen dituzten presoek gisako mina. Espainiar Gobernuak preso gaixo larriak zein euren senideak agoniarraino sufritzera kondenatzen gaituela jakinarazi dugu.

NBEk Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudelen aurkako Nazio Batuen Konbentzioan adostutako “torturaren” definizioa ezin dugu ahazteari utzi: *“Torturaren esanahia a propos eragindako min edo sufrikario larria da, izan fisiko edo psikologikoa, berariaz edo hirugarren baten bitartez informazioa lortzeko xedearekin, egin duen aktibitate edo susmopean dagoena zigortua izateko, pertsona hori ikaratu edo hertsatzeko, edo diskriminatzaile izaten diren beste arrazoi batzuk eragiteko helburuarekin, min edo sufrimendu hauek funtzionario publiko edo funtzio publikoak betetzen dituen beste pertsona batek eragina edo hauen baimen edo oniritziarekin izandakoa.”* Non dago I-3/2017 instrukzioa eta torturaren arteko ezberdintasuna? Orduan, nola izendatu behar dugu espainiar Gobernuaren borondate anker hau?

Egoera larri honi, larritasuna gehitzen dio faktore bat: “Kodigo Penalaren moldaketa berria” deituriko neurria ETaren armagabetea baino hilabete lehenago egitea ez da inongo kasualitatea. Are gutxiago, hiru aste igarota, ankerkeria eta krudelkeria osoarekin larri gaixo diren preso politikoek askatasunaren inguruan emandako erantzuna. Aurretik ere aipatu izan dugu: Espainiako kartzela legedia erabilia izan da etengabe, mendekuak behartzen duen neurrian momenturo moldatua izateko. Eta egungo momentuan mendekuak apustu sendoagoak eskatzen dituela begi bistakoa da. Espainiar

Gobernuak bortxakeria, ankerkeria eta mendekuari espazio legal bat eman nahi dio.

Balantze honetan 2017ko urtean aipagarriak izan ziren eta kezka handiena sortu zuten kasuak laburbiltzen ditugu.

### Oier Gomez

Urtarrilaren 10ean, Paristik gertu Meaux-Chauconin-Neufmontiers espetxean preso zen Oier Gomez Mielgo, Pitié-Salpêtrière izeneko ospitalean egoera larrian ingresatua izan zen. Euskal preso politikoari ebakuntza zaila eta biopsia egin zioten. Zutik jartzen eragozten zion bizkarreko min handia pairatu zuen Oier Gomez-ek aurreko bi hilabatean eta horren adierazle, abokatua bisitan joan zitzaionean ezin izan zuen lokutoriora atera. Meaux-eko ospitalera lekualdatzea proposatu zioten espetxeko medikuek urtarrilaren 6an, baina 2013an Meaux-en Hodgkin linfomagatik jasotzen zuen kimioterapia tratamenduaren sesioetan jasandako tratua ezagututa, uko egin zion proposamenari.

Urtarrilaren 10ean, bere egoeraren larritasunaz jabetzean, ospitaleratzea erabaki zuten presondegiko medikuek. Eskuburdinak esku eta hanketan jarrita zituela eraman zuten Meaux-eko ospitalera eta soilik eskanerra egitean askatu zizkieten hanketakoak. Ondoren, eta berriro ere eskuburdinak esku eta hanketan jarrita, ospitalera eraman zuten Oier Gomez. Bizkarrezurraren gaineko tumore bat kendu zioten. Ebakuntza zaila izan arren, aurretik, bigarren eskanerra egitean, bridekin lotu zuten eta jarraian, zunda sartuta zuela, berriro ere eskuburdinak jarri zizkieten ebakuntza aurreko dutxa hartzean. Ondoko asteetan, garatua zen bizkarrezurreko minbizia, Ewing motako sarkoma bat diagnostikatu zioten (pelbisean metastasi oseo ugariak eta buru metastasia).

2017ko otsailaren 2an arrazoi medikaletan oinarrituriko kondenaren suspentsio eskaera egin zen Pariseko Penen Aplikaziorako Auzitegiaren aitzinean. Epailleak, perito bat, mediku onkologo bat, izendatu zuen, Oierren osasun egoeraren inguruan eta segitu behar duen tratamendua espetxearekin bateragarria den edo ez denaren inguruan azterketa bat egin dezan. Oierretaz arduratzen diren medikuek Oierri ezarritako tratamendu medikal eta bere osasun egoera ez zirela bateragarriak espetxearekin kontsideratzen zuten.

*Etxerat*



Martxoaren 31ean egin zioten espertisa medikalak diagnostiko hori konfirmatzeaz gain, pronostikoa biziki iluna eman zuen, gaixoaren bizitza pronostikoa arriskuan zela erranez. Adituek 6 hilabeteko biziraupena ematen zioten, laguntza ingurune ospitalario bat behar zuela eta kondenen suspensio neurria egokia zela» adieraziz.

Apirilaren 19an Pariseko Kondenen Aplikaziorako Auzitegiak aztertu zuen eskaera. Egoera hain larria izanez, epaitegiak kondena suspensioa onartu zuen; bestalde, Oier-en kontra ziren 3 euroaginduen eskaeren suspentsioa onartu zuen ere Pariseko Appeleko Gorteko Instrukzio Ganbarak.

Apirilaren 27an Oier Gomez askatu zuten. Etxerat elkartetik, Oier Gomez eta bere ingurukoek pairatu zuten muturreko egoera ezin dela berriro errepikatu eta, horrenbestez, ezinbestekoa dela, euren eritasuna duintasun osoz tratatzeko eskubide osoarekin, gaixorik dauden presoek askatasuna zein gainontzeko presoak lehenbailehen Euskal Herrira ekartzea azpimarratu genuen.

## **Ibon Iparragirre**

Berriz ere oso gogorra izan da urtea Ibon Iparragirre preso politiko ondarrutarra eta bere senideentzat. Otsailaren 26an, Alcalá-Mecoko espetxean Ibon Iparragirre erasotua izan zela jakinarazi zuten, bai Ibon Iparragirreren senideek, zein Iparra Galdu Baik plataformak. Ibon Iparragirrek larriki gaixorik dago, HIESA du, C-3 estadioan. Horrek lesio neurologiko larriak sortu dizkio: konbultsioak, ikusmen arazoak eta memoria galera eta ondorioz pertsona zaurgarria da, are gehiago, dagokion modulua bereziki gatazkatsua eta biolentoa delako, nahiz eta bere kideengandik aldendua dagoen.

Martxoaren 3an, Ibon Iparragirreren aita zendu zen, Ibon eta gainontzeko senideak ondoan zituela. Alcalá-Mecoko espetxetik Ondarroako Artibai zaharren egoitzara ekarri zuten Ibon, aurreko astean bere aita bisitatzeko baimena eskatu ondoren. Eusebio Iparragirre osasun egoera oso kritikoan zegoen. Orduan, Etxeratetik irmoki exijitu genuen Ibon Iparragirre berriz Euskal Herritik ez urruntzea. Hala ere, martxoaren 7an Ibon Iparragirre lekualdatu zuten Alcalá-Mecoko espetxera, Txagorritxuko ospitalean aurreikusita

*Etxerat*

zegoen mediku-azterketa eta, baita, bere senideekin zegokion aurrez aurreko bisita egin gabe, abokatu eta bere senideek Etxerat Elkarteari ezagutzera eman dutenez. Bere amak Txagorritxuko ospitalean zegoela eta semea azterketa egitera ez zutela ekartzen ikusirik, Zaballako espetxera dei egin zuen eta bertatik baieztatu zioten Ibon Zaballako espetxe horretan ez zela aurkitzen.

Ekainaren 1ean, Ibon Iparragirre Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean ingresatu zuten. Egun batzuk zeramatzan itolarri handiarekin harnasa hartu ezinik eta ezularekin Ibonek Alcala Mecoko espetxean eta plakak ateratzeko eskatu zuen. Pneumonia zantzuak atzeman zizkioten eta horregatik ospitalera eraman zuten, «urgentziaz». Nabarmendu behar dugu Ibon Iparragirrereren hondatze fisikoa oso kezagarria dela. Eginiko azken analisiak iazko abenduan egin zizkioten eta «oso kezagarriak» ziren emaitzak.

Uztailan, Espainiako Auzitegi Nazionaleko mediku-forentseak baieztatu zuen C3 fasean dagoela Ibonek pairatzen duen HIESA, gaixotasunaren azken fasean hain zuzen ere. Irailean azterketak berriz egin zizkioten eta are kezagarriagoak izan ziren emaitzak. 20 defentsa baino zituela erakutsi zuten, pertsona heldu osasuntsu batek 723 eta 1.124 artean izaten dituelarik defentsak: infekzio bat hartzearen arriskua oso handia dela eta edozein infekzioak heriotzara eramateko arriskua luke.

Urriaren 13an, Etxerat elkarteak jakin zuenez, Ibon Iparragirrereren abokatuak eginiko askatasuna eskaerari erantzunez, Alcala-Mecoko zuzendariordearen esku geratu zen 104.4 artikulua aplikazioa Espetxe-Zaintzako epaileak hala bideratuz.

Abenduaren 20an, Alcala-Meco espetxeko medikuak aginduta, Principe de Asturias ospitalera eraman zuten Ibon Iparragirre euskal preso politikoa, azken egunetan eztula handitu zitzaiolako. Asteburuan bere egoera larriagotu zen, baina espetxean medikurik ez zegoenez, astelehenerarte ez zuten ospitalera bidali. Froga batzuk egin eta espetxera eraman zuten berriz ere. Bitartean, aurreko astean hain justu, ezagutu genuen Madrilgo abokatu kolegioko mediku batek Ibon Iparragirrereren osasun egoerari buruzko txostena, non argi eta garbi esaten da Ibon espetxetik atera behar dutela bere gaixotasuna modu egokian eta duintasunez tratatzeko.

Abenduaren 22an, epaileak Ibon Iparragirre Arrasateko Aita Menni zentrora bidaltzea erabaki zuela jakin genuen. Eskasa eta krudela zela erabakia salatu zuen Etxeratek. Ibonen gaixotasuna egonkorztea eta bere osasun eskubidea errespetatzea helburu, Ibonek osasun asistentzia duina izan behar du, eta espetxe legeriak baditu behar besteko mekanismoak kontrol neurriak zorrozteko, eskumuturreko telematikoa edo aldizka epaitegian sinatzearena alegia.

Alcala-Meco-n zegoen oraindik urte bukaeran.

### **Aitzol Gogorza**

Otsailaren 28an, Basauriko espetxean preso den Aitzol Gogorzaren senideek Etxerati jakinarazi diotenez, Basurtuko ospitalean berriz ingresatua izan zen. Euskal preso politikoak desoreka obsesibo-konpulsiboa pairatzen du sintoma psikotikoekin. Aurreko bi hilabetetan seigarren aldia zen Aitzol Gogorza ospitaleratzen zutela. Azken honekin gainera, espetxetik larritasunez 28 aldiz ospitaleratua izan zen Aitzol. Ordea, espetxe politikaren ezohikotasunak bere egoerari dagokion askatasuna ukatzen dio, gainontzeko euskal preso politiko gaixoei bezala.

### **Juan Mari Etxabari**

Abuztuaren 4an, Juan Mari Etxabari Garro Sevilla II espetxean dagoen preso politiko iruindarra Sevillako Ospitalean izan zen ingresatuta, goizean bere egoera larria ikusirik bertara eraman behar izan zutelarik. Pneumonia larri batek jota, odolbatu bat aurkitu zioten biriki batetan eta jarritako drainatze-sistema eta antibiotikoekin bere egoera egonkortu egin zen.

Ezuste ikaragarria eta kezka handia bizi izan zuten goizean zehar Juan Mari Etxabarriren senitarte eta gertukoek, Kepa del Hoyo preso politikoaren heriotzak egun batzuk lehenago sortu zuen mina eta ezintasuna oraindik presente genuelarik, Sevillak II espetxeko arduradun baten deia jaso zuten presoaren egoera larria zela eta euren senitartekoa ospitaleratu behar izan zutela jakinarazten.

Hilabete eta erdi Sevillako bi ospitaletan igaro ondoren, irailaren

*Etxerat*

12an itzuli zuten bere jaioterritik 954 kilometrotara aurkitzen den Sevilla II espetxera infekzioa sortzen zion birusa aurkitu eta tratamendu egoki bat jarri ostean.

### **Mikel Otegi**

Urriaren 26an, Mikel Otegi Ocaña I espetxean zegoen preso politiko goierritarra Toledoko Virgen de la Salud ospitalean ingresatua izan zen gradu ertaineko bihotzekoa sufritu ostean. Ondozik sentitzen zela, espetxeko erizaindegira hurbildu zen eta monitorizatu ondoren, ospitalera trasladatua izan zen Mikel. Senitartekoak Euskal Herritik Toledoko ospitalera (520 km) abiatu ziren Mikel Otegi sufritutako ezbeharrak jakin bezain pronto, eta gauean euskal presoak bisitatzeko aukera izan zuten une batez.

Bi egun beranduago, Mikel Otegi Ocaña I espetxera trasladatua izan bihotzekoa izan eta 48 ordura. Ospitalean ebakuntza kirurgiko baten bidez stent bat jarri zitzaion bihotzean preso goierritarri. Alta jaso zuen Mikelek eta ospitaleko plantara eraman behar zutela aipatu zioten, bertan kardiologoak bi-hiru egun obserbazioan izango zela bermatu ondoren senideei. Medikuek berberak, ordea, ohe faltagatik Mikel presondegiko areara eraman beharra izan zutela esan zuen.

Ospitalean dagoen presoendegiko atalean bisitak larunbat, igande eta asteazkenean zirenez, Mikelen senideak bisitarik gabe geratu ziren eta etxera itzultzea erabaki zuten (520 km). Etxera bidean Mikelen deia jaso zuten Ocaña I-eko espetxetik, kartzelako erizaindegian aurkitzen zela komunikatuz.

**2016eko urte bukaeratik, 3 kasu gehitu zituen osasun eremuko profesionalak biltzen dituen Jaiki Hadi elkarteak larriki gaixorik diren presoek zerrendan: Manu Azkarate, Mikel Arrieta eta Mikel Otegi. Kasu berri horiekin, 14ko zerrenda batekin bukatu genuen 2017ko urtea, jakinez beste 8 presok, egoera berean, anonimatu mantentzea nahiago dutela.**



1. **Jose txo ARIZKUREN RUIZ** (Iruñea, 1958) - Murcia II - 1999ko martxoan atxilotua. Frantzian 7 urte pasatu ondoren, 30 urteko kondena eman zioten Espainian. Kardiopatia iskemiko larria. Kateterismoa: Stent hodi batean.
2. **Mikel ARRIETA LOPIZ** (Errenteria, 1960) - Algeciras - 2000an atxilotua, 30 urtera zigortua dago. Espondilartropatia kroniko seronegatiboa HLA B27 positiboarekin (2017/02/01eko Campo Gibraltar Ospitaleko Barne Medikuntzako Alta txostena). Eskuinaldeko Sakroileitisa Daktilitisa ezkerreko oineko zenbait behatzetan. Eskuineko belauneko artritisa.
3. **Garikoitz ARRUARTE SANTA CRUZ** (Hernani, 1980) - Almeria - 2003an atxilotua. 20 urtera zigortua. Espondilitis Ankilosante, Artralgiak, Aldebiko Errotula Kondropatia, Aldebiko sakroilitisa.
4. **Jose Manuel AZKARATE RAMOS** (Tolosa, 1963) - Alcala-Meco - 2016an atxilotua. 2021an betetzen du zigorra. Hautzarotik porta zaineko kabernoma duena, digestio hemorragien arrisku larria eta zirkulazio arazo garrantzitsuak (zelulitisa eskuineko behe gorputz-adarrean, zain gutxiegitasun kronikoa), besteak beste, eragiten dizkionak. 1992an, espetxeratua egonik, gaixotasun larri honengatik baldintzapeko askatasunean ezarri zuten, III/IV graduako esofago barizeek sortutako larrialdia zela eta. 1986n, ezker aldeko tronboflebitis ileo-femorala izan zuen, eta ondoren arazo zirkulatorio larriak ditu alde horretan.
5. **Joseba BORDE GAZTELUMENDI** (Ugao, 1959) - Curtis, Teixeira - 2002an atxilotua. 30 urtera zigortua dago. 5 zentimetroko adenokartzinoma, Ila estadiokoa.
6. **Jagoba CODO CALLEJO** (Donostia, 1964) - Castello II - 2001ean atxilotua. Orokorrean, 22 urteko zigorra. Espondilitis Ankilosante B 27negatiboa, pluripatologia koadroa.
7. **Iñaki ETXEBERRIA MARTIN** (Iruñea, 1964) - Topas - 1996ko otsailaren 12an Frantzian atxilotua, 2001eko otsailan estraditua, 30 urteko kondena. Miopia Magnoa koriorretinitis miopikoarekin, Eskuineko Begiko Erretina Hemorragia, Ikusmenaren zorrotasunaren galera, bi aldeko Glaukoma.

8. **Ibon FERNANDEZ IRADI** (Lasarte, 1971) - Lannemezan - 2003ko urtarrilaren 4an atxilotua. 30 urtera zigortua. Esklerosi Anizkoitza.

9. **Gorka FRAILE ITURRALDE** (Durango, 1970) – Badajoz - 1998an atxilotua. 30 urtera zigortua dago. Mingainaren kartzinoma epidermoidea.

10. **Aitzol GOGORZA OTAEGI** (Orereta, 1975) – Basauri, kideengandik isolatua – 1999an atxilotua, 10 espetxe urte beteak ditu Estatu frantsesean eta 20 urteko zigorra jaso du Entzutegi Nazionalean. Eboluzio kronikoa eta ezgaitasunezkoa duen Obsesio Konpulsio Desoreka, Desoreka Depresiboa autolisi arriskuarekin.

11. **Ibon IPARRAGIRRE BURGOA** (Ondarroa, 1973) – Alcala-Meco, kideengandik isolatua - 2010ko urtarrilaren 26an atxilotua. 40 urteko zigorra. VIH C-3 estadioko infekzioa, lesio neurologiko garrantzitsuarekin, Enzefalopatia subakutua, laguntza psikologikoa behar izaten du.

12. **Jose Ramon LOPEZ DE ABETXUKO LIKINIANO** (Gasteiz, 1949) - Villabona - 1989an atxilotua. 30 urtera zigortua dago. Bradikardia sintomatikoa, Kateterismoa, 2014ko irailaren 19an taupada markagailu bat ezarri zioten, Prostatako adenoma. Zerbikoartrosia: Zerbikalgia. Bialdeko koxartrosia (Ezker aldakako artrosia 2002tik). Koxalgia.

13. **Jesus M<sup>a</sup> MARTIN HERNANDO** (Basauri, 1962) – Zaballa, beste kideengandik isolatua - 2002an atxilotua, 8 urte egin zituen atxilotua Estatu frantsesean, erabat bakartua. 2010ean Espainiaratua izan zen. Eskizofrenia paranoidea eta Antsietate Nahasmendu orokortua, Hasiera faseko Nahasmendu Kognitiboa, 2010/09/23an, bakartze erregimena eta egoera oso bortitzak urte luzez pairatu ondoren, zainak mozten saiatu zen. Hori dela eta, Laguntza protokoloa (bere buruaz beste egiteko arriskua dutenei ezartzen zaiena, eguneko 24 orduak lagunbatenzaintza peanegonbehar direlarik) ezarria du. Paranoia larriak izanditu, ahotsak entzuten aldiro eta zentzurik gabeko solasaldiak egiten ditu maiz.

14. **Mikel OTEGI** (Itsasondo, 1972) –Valdemoro– 2003an Frantzian atxilotua eta Espainiari entregatua. 34 urteko kondena. Syndrome koronario akutua (Bihotzekoa). Stent hodi batean.

## 3. DISPERTSIOAREN BESTE ONDORIOAK

### 3.1 Istripuak

2015ean 5 auto istripu izan ziren dispertsioaren errepideetan, haietatik 4 apirilan. 2016eko urtean, 8 istripu jasan genituen, haietako 3 ekainan, beste 2 azaroko asteburu berean. 2017an 9 izan dira.

**Otsailaren 11n** gertatu zen lehena. Jaenen preso zegoen **Premin Sanpedro** euskal preso politikoaren bi anai eta gurasoek kotxe istripu bat jasan zuten arratsaldeko lehenengo orduan, Jaengo espetxera (800 km) asteburuko bisita egitera zijoazela. Aranda de Duero-tik gertu gertatu zen ezbeharra, aurretik zijoan kamioiaren gurpila lehertu ondoren, errepidean gelditu zen gurpil zatiaren kontra jo zuten. Senideen kotxeak kalte arinak jaso zituen eta Guardia Zibilak atestaturia egin ondoren, espetxeko bideari ekin zioten berriro euskal presoaren lau senide hauek.

**Otsailaren 12an**, asteburu berean, Sevillan, etxetik 882 kilometroetara preso dagoen **Iñaki Arakama** euskal preso politikoaren iloba, bere mutil-laguna eta hirugarren lagun batek auto istripua jasan zuten arratsaldeko 18:00etan, Bejar-en, Salamancan, asteburuko bisita egin eta etxera bueltarako bidaian. Autobidean txakur bat harrapatu ondoren, bolante-kolpeak jo behar izan zituzten kotxea bidetik ez ateratzearren eta, azkenik, hesia kolpatu ostean kotxea gelditzea lortu zuten. Kolpe-leungailu eta ezkerreko argiak apurtu zitzaizkien, eta etxerako bideari ekin zioten jarraian.

**Martxoaren 11n** Picassent-eko espetxean (647 km) dagoen **Asier Badiola** euskal preso politikoaren bi lagunek istripua izan zuten eguerdi aldean bisita izan ostean. Istripua, Valentzian gertatu zen, bisita egin ostean etxera bueltan zirela. Beste auto batek atzetik jo zion Badiolaren lagunak zihoazen ibilgailuari, eta kolpearen ondorioz ezin izan zuten bidaian jarraitu.

**Apirilaren 2an**, Murtziako espetxean (787 km) dagoen **Mikel San Sebastian** preso politikoaren lagun batek kotxe istripua sufritu zuen

goizaldean Oiartzunen bisita izan ostean. Mikel San Sebastianen laguna goizaldean iritsi zen Lopidanara Murtziatik zetorren Mirentxineko furgonetan eta, ondoren, bere auto partikularrean itzulera bidaia egin behar zuen Lesakaraino. Oiartzungo bidesaria igaro ostean, euri-erauntsi baten erruz preso politikoaren ahaideak autoaren kontrola galdu eta errepideko erdibitzailearen aurka jo zuen. Autoa erabat birrindua geratu zen, baina Mikel San Sebastianen laguna onik atera zen.

**Apirilaren 13an**, Saint Martin de Ré espetxean (550 km) dagoen **Ander Mujika** preso politiko donostiarraren senideek auto istripua izan zuten eguerdi aldean. Ander Mujikaren gurasoak, anaia eta bost urteko ilobak Bordele parean sufritu zuten ezbeharra. Aurrean zihoan autoak ezustean balaztatu ondoren, senideen autoak arazorik gabe frenatzea lortu zuen baina atzetik zetozen 2 autok kolpatu zituen, azkenean 4 autoreen arteko talka gertatu zelarik.

**Ekainaren 3an**, **Asier Ormazabal** euskal preso politikoaren bi lagunak ezbehar larria sufritu zuten Teruelgo espetxetik itzultzean, Zaragoza inguruan; bi lagunak zauriekin ospitaleratu behar izan zirelarik. Teruelgo espetxetik itzultzean sufritu zuten bi lagunak ezbeharra, Longares inguruan, Zaragozan. Bi lagunak zauriekin ospitaleratuak izan ziren, eta 24 orduz obserbazio arretan egon ondoren istripuaren inpaktu altuarengatik, etxera itzultzeko aukera izan zuten ondoko egunean. Diagnostikoak istripuaren larritasuna ageriko utzi zuen: 5 puntuko sutura ukalondoan, polikontusionismoak, ebakiak, zerbikalen zuzenketa eta lepokoa jartzea.

**Ekainaren 26an**, **Iker Lima** euskal preso politiko galdakaoztarraren lagun batek ezbeharra sufritu zuen atzo Huelvako espetxetik itzultzean, Salamanca inguruan. Errotonda batetik berriro autobiarra abiatzen zenean kotxearen kontrola galdu eta autoa errepidearen albo batean irauli egin zen. Autoan zihoan lagunak ez zuen, zorionez, kalterik jasan eta arrastaka kotxetik atera zen. Ez zen lehen aldia, gainera, Iker Limaren lagun honek kotxe-istripua sufritzen zuela bere lagun preso bisitatzeraz joatean. Duela hiru urte ezbehar bat izan zuen Tordesillan, Caceresko espetxera bidean errai erdian zegoen kamioi baten gurpila jo ostean.

**Irailaren 17an**, **Asier Garcia Justo** euskal preso politikoaren bikoteak arratsaldean trafiko istripua sufritu zuen Badajozeko espetxera bidean zela, Ruta de Plata inguruan. Istripuak nerbio-estutzea eta eragin zion



lunbar zein zerbikaletan, eskubiko besoan fisura muskularra eta saihets-hezurretan kolpe fuertea. Istripua Ruta de Platako 400 kilometroan sufritu zuen, Salamancatik 70 kilometrotara dagoen Bejar atzean utzi ondoren. Bere erraietik gidatzen ari zen momentuan, atzetik bi erraien artean gidatzen ari zen auto batek aurretik eraman zuen bere autoa. Bere ardatzari hiru buelta eman ondoren, aurreko eskubiko gurpila lehertuta eta autoaren alde bat kaltetuak geratu ziren. Istripuaren eraginez Asier Garcia Justoren bikoteak bere etxetik 706 kilometrotara kokatua dagoen Badajozeko espetxean zuen bisita galdu zuen eta, Bejarreko ospitalean artatu ondoren, Urdulizeko ospitalera trasladatua izan zen.

**Abenduaren 27an**, Jaioterritik 550 kilometrotara aurkitzen den Castello I espetxean dagoen **Marta Igariz** euskal preso politikoaren senideak zauritu ziren, horietatik bi larriki, bisita egin ondoren Hernanira bidean zirela Leitza inguruan istripua pairatu eta gero. Arratsaldeko 16:30etan gertatu zen ezbeharra, Marta Igarizen ahizpa, ama eta izeba zihoan autoak Leitzako bigarren tunela igaro ostean. Elurra egin berri zenez, gurpila eta errepedearen arteko itsaspena ez zen egokiena eta, autoaren kontrola galdu ostean, lehendik bazterbidean istripua izan zuen auto baten aurka jo ziren bortizki. Ezbeharra gertatu ondoren, Marta Igarizen ahizpa bere kabuz irtetetzeko aukera izan zuen autotik, ondoren Gipuzkoako Ospitalera trasladatua izanik. Izeba ere bere kabuz irten zen autotik, baina ama autotik atera behar izan zuten ezintasuna medio. Izeba eta ama Poliklinikara trasladatuak izan ziren.

### 3.2 Bisita eskubidearen urraketak

#### Haurrentzako araudi berria Topaseko espetxean

Maiatzan, Topaseko espetxeko zuzendaritzak, Salamanca (440 km), ikastetxeen asistentzia ziurtagiriak eskatzen hasi zen hurrek vis a vis komunikazioak burutu ahal izateko asteburuetan. Josune Arriaga preso politikoaren senideek Etxerat Elkartearen informatu zuten araudi berri honen inguruan, ziurtagiri hauek entregatu behar ziren data baino bi egun lehenago abisatuak izan zirelarik. Josune Arriagaren kasuan espetxe ezberdinetara denbora luzez bidaiatzen igaro zuten eta eskolatze behartuan aurkitzen ziren haurrak ziren. Zentzugabeko araudi honi komunikatu ondoren emandako denbora epea gehitu

behar zitzaion, bisita ez galtzarren familia presazko gestioak egitera behartu zutelarik.

Kasu hau da, hain zuzen ere, espetxean aurkitzen diren ama edo aitek euren seme-alabekin (10 urte azpitik) dituzten konbibentziatzko vis a vis-etan gertatzen dena. Espetxe gehienetan lanegunetan izaten dira bisita horiek. Hori dela eta, haurrari lagundu behar dion helduak jai hartu behar du bere lantokian eta, haurraren kasuan, eskola egunak galtzera behartzen dute, non espetxe arduradunek inoiz ez duten kontuan hartzen halako arazorik.

### **Arazo handiak izan ditu Txuma Altable euskal preso politikoak ama ikusi ahal izateko**

Azaroaren 22an, bere etxetik 550 kilometrotara urrundua den Castello I espetxean aurkitzen zen Jesus Mari Altable preso iruinduarraren kasua salatu genuen, Parkinsonak jota dagoen eta 92 urte zituen bere amari bisita egiteko eskariari uko egin berri ziotelako. Bai Castello I-eko zuzendaritzak, zein Espetxe Instituzioaren zuzendaritzak Txuma Altableri baimena hori debeketu zizkieten legeak nafar presoaren eskubideak babestu eta aitortzen dituelarik.

Kasu honetan gainera, bere senideengandik gertu egoteko espetxe aldaketa eskatzen ahal zuela Jesus Mari Altablek jakin genuen, horretarako baldintzak betetzen dira kasu honetan espainiar Auzitegi Nazionalaren fiskaltzak egindako txostenaren arabera. Gauzak horrela, presoaren eskubideekin jolasteari utz dezan exigitu genion Espetxe Instituzioari eta, era berean, euskal preso bere etxetik gertu dagoen kartzela batera aldatzeko prozedura hastea eskatu. Horrekin batera Espetxe Zaintzako epailearen jarrera gogor salatu genuen, Jesus Mari Altableren eskaeraren kontra behin eta berriro prozedura atzeratzen ibili delako.

Azkenean, Espetxe Zaintzako epaileak bere amari bisita egiteko baimena eman zion Jesus Mari Altable euskal preso politikoar Azaroaren bukaeran.

### 3.3 Presoen aurkako urraketa larriak

#### Presoak erasotzeagatik, Fleuryko preso politikoek funtzionario baten lekualdaketa eskatu eta lortu zuten

Urtarrilaren 24etik aurrera, Fleury-Merogis espetxeko 1. Dibisioan zeuden sei euskal preso politikoek hainbat ekimen burutu zituzten funtzionario baten lekualdatzea lortzeko helburuarekin. Aipaturiko funtzionarioak 2017ko urtarrilaren 19an Iñaki Reta preso elorriarra kolpatu ondoren hartu zuten erabakia bertako euskal preso politikoek. Aurretik, funtzionarioaren jarrera ezagututa, euskal presoekiko mantentzen zuen jarrera ezkorra eta hainbat kideek jasandako erasoak zirela medio, bere funtzioetan ez aitortzea erabaki zuten Fleuryko euskal preso politikoek. Oraingoan, bisitak amaitzean Iñaki Reta miatu nahi izan zuen. Dibisioko *Chef*-ari helarazi zion Retak, ez ziola uko egiten miaketari, baizik eta funtzionario horrek miaketa egiteari uko egingo ziola. Eztabaidaren baitan, bera kolpatua izan zela planta eginez, “ne me touche pas” ohiukatu zuen funtzionarioak, Iñaki Retari aurpegian kolpatu bitartean. Funtzionarioaren defentsan, oihuka hasi zen orduan euskal presoaren aurka, komunikazioak blokeatzen ari zela leporatuz.

19an gertatutakoa baino larriagoa izan zen espetxeko arduradunen jarrera, eta neurriak hartu ez gero, euskal presoek esanetan, gehiegikeria eta tratu txarrak errazten dituen inpunitate eremua sortzeko arriskua zegoen. Jakina da, aurretik, funtzionarioak Aitor Elizaran, Andoni Goikoetxea, Ibon Goieakoetxea eta Joseba Iturbide euskal presoak erasotu zituela ere. Hori dela eta, euskal preso politikoek behin eta berriro eskatu zuten modulotik kanpo bidaltzea. Azken asteetan, aldiz, tentsio eta arazoak areagotu ziren funtzionarioaren presentzia ohizkoa bihurtu zelako departamenduan.

Hainbat ekintz burutu ondoren (kartelak, bazkari ukapenak, gutunak...), otsailaren 9an, funtzionarioa departamendutik at izango zela konpromisua jaso zuten Fleuryko presoek Espetxeko zuzendaritzaren partetik eta protesta bertan behera utzi zuten.

#### Igor Gonzalez Sola euskal preso politikoa berriz urrundu egin dute finkatuak ziren azterketa medikalak egin gabe

Apirilaren 1ean, Igor Gonzalez Sola euskal preso lekualdatu zuten Zaballako espetxetik Badajozeko espetxera. Gonzalez aurreneko

astean heldu zen Zaballara, gaixorik dagoen bere ama bisitatzeko baimena jaso ondoren.

Igor Gonzalezen lekualdatzea salatu genuen, bere eskubidea delako senideengandik gertuen dagoen espetxe batean egon, are gehiago bere ama gaixorik baldin badago. Oso larriak izan ziren ere Espetxe Instituzioek jarri zituzten eragozpenak, egun berean Zaballan Igor medikuarekin kontsulta pasatu behar zuen eta aurreko baten, Ibon Iparragirrerekin gertatzen bezala, kontsulta bertan behera gelditu zen.

### **Ebakuntza izan ostean Ramada Estevez presoak tratu krudela jasan zuen**

Azaraoren 24an, Murtzia I-ko espetxean, Euskal Herritik 830 kilometrotara, dagoen Jose Ramada Estevez euskal preso politikoa ebakuntza bat izan ostean jasandako tratua salatu genuen. Juanikote ebakuntza amaitu eta gutxira espetxera lekualdatu behar zutela jakinarazi zioten presoari, beharrezko atsedendirik hartu gabe. Ramada Estevezek espetxerako bidaia egiteko baldintza egokietan ez zegoela adierazi zuen, mugitzean min handia sufritzen baitzuelako. Ibiltzeko gai ez zenez ospitaleko kirurgialari ambulanzian eraman behar ote zuten galdetu zion, baina kirurgialariak poliziaren furgioan eramango zutela erantzun zion, “hori eta gehiago merezi” zuela gehituz.

Bidaian euskal presoak oso gaizki pasa zuen, min handia eta leku txiki batean egotearen ezintasunak sufrikarioa bikoiztu zuten. Espetxera iristean bertako segurtasun arduradunak bidaiaren baldintzak ikustean harritu egin ziren. Esan beharra dago lekualdaketa burutu zuten poliziek zein Murtzia I-ko espetxe arduradunek erakutsitako jarrera egokia izan zela, baina Etxerat Elkartetik kode deontologikoa urratu duen kirurgialariaren portaera salatu nahi dugu irmoki.



### **Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujika euskal preso politikoak isolamenduan Granadako espetxean neurri matxistak uko egiteagatik**

2017ko maiatzatik, isolemendu erregimena aplikatzen dizkie Agurtzane Delgado (Ermua) eta Ainhoa Mujika (Egia-Donostia) euskal preso politikoei Granadan dagoen Albolote espetxeko zuzendaritak. 9. moduluan dauden emakume presoak komunak garbitzeko betebeharra ukatzeagatik zigortuak izan dira, lan horiek egitera, bestetik, gizonetakoak behartzen ez direlarik.

Geroztik, hainbat aldiz salatu du Albolote-ko euskal preso politikoen kolektiboak kartzel honen zuzendaritzaren jarrera matxista. Horren beste adibide bat: formakuntza eta aktibitateak emazteei debekatzeko dizkiete "harreman sexuela izateko arriskuagatik". Azaroan, protesta mugimendu bat hasi zutela jakinarazi zuten espetxe honetako preso guztiek, besteen artean plantoen medio.

Urte bukaeran egoera berean segitzen zuten bi euskal preso politikoeak.

## **3.4 Senideentzako beste ondorio larriak**

### **Euskal preso baten ama egoera larrian ospitaleratu dute Valentzian, bere alaba bisitatzen zegoela**

Olatz Lasagabaster euskal preso politikoaren ama den Mari Carmen Anza, Valentiako ospitalean ingresatua izan zen urtarrilaren 21ean. Ama izan berri zen Olatz alaba bisitatzeko asmoz abiatu zen Valentziara Mari Carmen. Olatz erditu berri ospitaleratu zegoela, Mari Carmen bisita egiten ari zenean gaizki sentitu eta ospitaleratu egin zuten jarraian, biriketako mina dela eta. Arazo larriak izan zituen, eta 33 egun pasatu zituen Valentzian, UVIn ingresatua. Martxoaren 1ean Donostiara ekarri ahal izan zuten. Martxoaren 31n alta eman zioten Mari Carmeni.

Preso politiko eta senide eta lagunaren aurkako presioa areagotzeko tresna bezala erabiltzen duten salbuespeneko kartzela politikak, kasu honetan, Olatz Lasagabaster eta bere senitartekoengan duen eragina eta sufrimendua ozen salatu genuen. Bere etxetik 600 kilometrotara

dago Olatz, eta alaba, bere inguru afektibo eta familiarretik urrun izango da. Mari Carmen Valentziara bidaiatzera behartuta dago. Bere alaba bisitatzera eta iloba ezagutzera abiatu zen, errepidea elurrez beteta zegoelarik, oso bidaia korapilatsua eginez. Behin Mari Carmen ospitalean ingresatua, berarekin egoteko eta medikuekin hitz egiteko, senideek, berriro ere, urruntasunak ondorioztatzen dituen sekulako zailtasunak gainditu behar izan zituzten.

## 4. KRIMINALIZAZIOA

### **Elkartasun aurkako prozedurak segitzen du Madrilen**

Urrian, Madrilgo Auzitegi Nazionalaren fiskalak euskal preso politikoaren eskubideen alde lan egin izateagatik, 48 pertsonen kontra 8 eta 20 urte arteko kondenak eskatu zituen. Haien artean, gure lankide eta bozeramaile ohiak Izaskun Abaigar y Nagore Lopez de Luzuriaga, baita ere osasun eremuko profesionalak biltzen dituen Jaiki Hadi elkarteko kideak diren Oihana Barrios eta Fernando Arburua.

## 5. IKASKETA ESKUBIDEAREN URRAKETA

**Euskal presoek EHU-n ikasteko duten eskubidea bermatzeko konpromisoa berriz eskatu diegu Eusko Jaurlaritza eta Unibertsitateari**

Irailaren 14an, euskal presoek EHU-n ikasteko duten eskubidea bermatzeko konpromisoaren inguruan eskaria egin genien Eusko Jaurlaritza eta Unibertsitateari. EHUko 2017-18 ikasturteari hasiera emateko ekitaldian bildu ginen euskal preso politikoen senitartekoen, EHUko sindikatu, irakasle, AZP zein ikasleen ordezkariak, EHUko eta Eusko Jaurlaritzaren agintariei gure eskaera helarazteko: euskal presoek EHU-n ikasteko eskubide osoa dute. Presoak Euskal Herriko seme-alabak dira eta hemengo ikastetxeetan, euskaraz, ikasi nahi dute; eskubide hori berma diezaieten galdegin genien EAEko agintari akademiko zein politikoei.

80ko hamarkadan hasi ziren euskal presoak EAEko unibertsitate publikoan ikasten; baina, 2003an kaleratu zituzten eta, horren ondorioz, Espainiako espetxeetan dauden presoek ezin dute EHU-n ikasi. Espainiar zein frantziar espetxe politikak euskal preso politikak zigortzeko xedea dute: urruntze eta bakartze politikak, zigorren luzapena eta oinarrizko eskubideen urraketa... Hezkuntzaren debekua testuinguru honetan kokatzen da. Eta presoak zigortzeaz gain, gu geu ere, senitartekook, zigortzen gaituzte.

Autonomia Erkidegoko Erakundeek ezintasuna agertu zuten, eraso bidegabe horri legediaren zein politikaren arloetatik erantzuteko. Horrela, Madrilgo gobernuaren jokabide injustuari men eginez, presoek euskaraz eta Euskal Herriko unibertsitatean ikasteko eskubidea urratzen dute. Oinarrizko eskubideen urraketa bukatzeko garaia da.

Jaurlaritzako gobernukideei hezkuntza eskubidea gauza dezatela eskatu genion. 2004an onartu zen Unibertsitateko Legeak euskal herritar ororen ikasteko eskubidea jasotzen du, baita eskubidea gauzatzeko legeak behar duen garapena ere. Urteotan, Jaurlaritzako agintari politikoei ez dute legeak agintzen duena bete.

EHUko Errektoretzari euren zeregina bete dezala eskatu genion. Orain arte, EHUK bere funtzio nagusiaren debekua onartu du, hots, Espainiako espetxeetan Euskal Herriko ikasle presoek irakasteko debekua. Edozelan ere, 2009an Espainiako Konstituzio Epaitegiak EHUri unibertsitate autonomia onartu zion. Hori dela eta, EHUri bere jokabidea aldatzea eskatu genion: Espainiako espetxeetan dauden presoek ikasteko eskubidearen aurka ari da jokatzeko eta presoak epaitegietara jotzera behartzen ditu, EHUn ikasi ahal izateko.

Izan ere, Gasteizko Gobernuak eta EHUK norabide biko jokabidea erabili dute: batetik, Madrilera begira egon dira, hitzarmena noiz lortu; baina, bestetik, eurei dagozkien ardurak eta zereginak ez dituzte bete. Ordua da espetxe politika injustua gainditzeko eta hezkuntza eskubidearen urraketari amaiera emateko. Xede hori lortzeko beharrezkoak diren neurri politikoak eta akademikoak har ditzatela eskatzen diegu EHUri, Hezkuntza Sailari eta Gasteizko Gobernuari.

Azken urteotan bezala, hezkuntza eskubidearen bi arlo nagusiri heltzeko eskaera egin genien:

- Espainiako espetxeetan dauden euskal presoek EHUn ikasteko eskubidea bermatzea, unibertsitate autonomia eta Unibertsitate Sistemaren Legea oinarritzat hartuta.

- Gaurko bazterkeria eta disfuntzioak gaindituz, Frantziako espetxeetan dauden presoek EHUn ikasteko baldintza egokiak eskaintzea, kalitateko hezkuntza eta doakotasuna bermatuz.

Hezkuntza eskubidea bermatzeko bide honetan, Eusko Jaurlaritzaren eta EHUn konpromiso sendoa ezinbestekotzat jotzen dugu.



## 6. ERAGILEAK – INSTITUZIOAK

### Europa

2015ean, Europako Legebiltzarrean egindako bisitan Etxerat elkarteak sortutako harremanen jarraipen gisa, Etxerateko delegaritzak Bruselara abiatu zen joan zen 2017eko urtarrilan Europako legebiltzarkideekin elkarrizketak gauzatzera (ikus hor azpian). Inplikatzeko nahi horren ondorioz proposamen eta konpromiso zehatzak gauzatu ziren, besteak beste, Etxeratek bidaiak egingo zituela Europako beste herrietan.

Espainiar eta frantziar estatuek eskubideen urraketak mantendu nahian baliatzen duten blokeoa gainditzea genuen jardueraren helburua, eta bereziki, urraketa hoiendorioak azaldu, alegia, presoen urrunketarekin bukatzeko beharra eta ondorio lazgarrienetako bat, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoen egoera.

**Urtarrilaren 10ean**, Etxerat Elkarteko delegazio bat **Bruselara** joan zen Europako legebiltzarkideekin elkarrizketak gauzatzera. Gure bozeramaileekin batera, bidai horretan parte hartu zuten larri diren presoen bi senidek: Genezane Callejo (Jagoba Codóren izeba) eta Mila Iradi (Ibon Fernandez Iradiren ama). Basque Friendship taldekideekin, GUE/NGL aliantzako parlamentuko taldearekin eta Europako Legebiltzarreko beste legebiltzarkide batzuekin bildu ginen. Flandriako Legebiltzarreko lehendakariarekin ere bilera bat ospatu genuen. Kasu guztietan, gaixotasun larriak pairatzen dituzten presoen diagnostikoak, egungo osasun egoera eta espetxeetan ematen diren bizi baldintzak jasotzen dituen txostena entregatu genien.

**Martxoaren 7an**, Etxerat Elkartearen izenean, bozeramailea den Urtzi Errazkin eta Genezane Callejo (Jagoba Codó euskal preso politikoa izeba) abiatu ziren **Suitza eta Alemaniara**. Berriz larri diren gaixoen egoera ekartzeaz gain, Nekane Txapartegi euskal preso politikoa bisitatu zuten Zuricheko espetxean. 1999an atxilotu zuten eta torturatu egin zutela salatzen zuten euskal preso honek.

Ondoren, Bernako RaBe irrati librean elkarrizketatuak izan ziren Etxerateko ordezkariak. Suitzako Legebiltzarrean, Balthasar Glättli, Talde Berdeko arduraduna eta Parti Ouvrier et Populaire (POP)

alderdiko ordezkaria den Denis de la Reussillekin bildu ziren ere, besteak beste, Etxerateko ordezkariak. Ondoren, giza eskubideen aldeko erakundeekin bildu ziren. Nekane Txapartegiren kasuari buruz, tratu txarrak eta torturak ikertzeko protokoloa, Istanbuleko Protokoloa alegia, lantzen ari direla baieztatu zuen PSSko ordezkariak. Torturaren Aurkako Mundu Erakundeko (OMCT) arduradun batekin ere bildu zen Etxerat. Gaixo dauden presoek kasuen jarraipena egiten ari da OMCT eta Ibon Iparragirre preso ondarrutarraren txosten berriak eskatu zituzten Etxerateko ordezkariak.

Berlinen, Die Linkeko ordezkariarekin bildu ondoren, martxoaren 8ko manifestazioan hartu zuen parte Etxerateko delegaritzak. Alemaniako hiriburuan bi hitzaldi gauzatu ziren gaixo dauden presoak abiapuntutzat hartuta, batetik abokatu eta eragile sozial eta sindikalekin, eta bestetik gune autogestionatu batean, hainbat lagun parte hartu zutela.

**Maiatzaren 20an, Danimarka eta Suediara** abiatu zen Etxerat Elkarteko delegazio bat, berriz ere bertako eragile politiko zein giza eskubideen defentsan ari diren elkarteekin elkarrizketatzeko. Oraingoan, eragile politiko zein giza eskubideen defentsan ari diren elkarteekin elkarrizketatu ziren Etxerat Elkarteko bozeramailea den Urtzi Errazkin eta Ikerne Altuna, Jose Ramon Lopez de Abetxuko euskal presoaren koinatua.

Kopenhageko Forum International Etxean antolatutako mahai inguru batean parte hartzeaz gain, hedabideekin izan zen Etxerat Elkarteko delegaritzak. "Flamman" izeneko astekarian elkarrizketa egin zieten. Horrekin batera, Amnesty International (AI) elkarteko kidea den Trine Christensenekin bildu ziren. Euskal presoek egoeraren berri giza eskubideen alde lana egiten duten beste erakundeei helarazteko konpromisoa hartu zuen AI-k. Danimarkako parlamentarioek ere hartu zituzten Etxerateko kideak, besteak beste, Feroe Irltako Sjurdur Skaale eta Green/Red-eko Nikolaj Villumsenekin bildu ziren.

Ondoren, Suediako ezkerreko bi parlamentario eta europarlamentario baten ordezkariarekin hartu-emanak mantendu zituen Etxerateko delegaritzak. Kasu guztietan, elkarlanean jarraitzeko konpromisoa hartu zuten ordezkari politikoek. Stockholmon Kafe 44 izeneko aretoan, bestalde, hitzaldia eskaini zuten Etxerateko kideek.

**Irailaren 18an, Norvegia eta Finlandiara** abiatu zen Etxerat Elkarteko beste delegazio bat. Aldi honetan, Urtzi Errazkin Etxerat Elkarteko bozeramailea eta Gentzane Callejo, Jagoba Codo euskal preso politikoaren izebak osatu zuten delegaritza. Lehenbiziko bilera Helsinkin izan genuen, Vasemmistonuoret ezkerreko gazteen erakundeko burua den Hanna-Marilla Zidanekin hain justu. Ondoren, Finlandiako Berdeen lehendakaria, parlamentari ohia eta Helsinkiko zinegotzi ohia den Pekka Haavistokin izan genuen solasaldia. Ministro ohia eta Finlandiako Parlamentuko Giza Eskubideen batzordeko lehendakariarekin, Eva Biaudetekin izan ginen ere.

Giza eskubideen aldeko erakundeekin ere izan zen Etxerat Elkartea, besteak beste, Finlandiako 100en izeneko arduraduna den Anni Lahtinen, eta Bakerako Batasuneko ordezkaria den Laura Lodeniusen. Finlandiako Alderdi Sozialdemokrataren Tero Shemeikka eta ezkertiar alderdiko Papo Aritmaki ministro ohia eta parlamentariarekin ere izan ginen.

Norwegian, Oslon, Klassekampen egunkariak elkarrizketa bat egin zien Urtzi eta Gentzaneri. Eragile politiko eta sozialei dagokionean, besteak beste, ezkerreko solizalisten alderdiaren (Sosialistisk Venstreparti SV) bi kiderekin izan zuten bilera Etxerateko ordezkariak, eta baita ere, Rodt Alderdiko nazioarteko saileko kideekin.

**Herri eta hitzordu guzti horietan**, sumindura eta harridura adierazi zutela eragile politiko eta sozialek egun espainiar eta frantziar estatuek preso eta haien senideengan mantentzen dituzten eskubideen urraketak jakitean azpimarratu genuen, baita ere egin ziguten jarrera ona eta lanarako erakutsi zuten prestasuna. Gurekin bildutako taldeen aldetik, interesa lehenbizi, eta ondoren, kezka, elkartasuna eta egoera honekin behingoz bukatzeko parte hartzeko borondatea baino ez ditugu ezagutu. Jakin badakigu Europa mailako alderdi eta eragileen konpromiso eta ekintzekin ez dela nahikoa izango salbuespeneko espetxe politikarekin bukatzeko. Badakigu ere eskubideen urraketan baitan onartzen diren gomendio eta konklusioei beti uko egiten dietela bi estatuek. Baina hala ere, aurrerapausoa egin dugula argi dugu. Hainbeste traba eta oztopo gainetik ematen ditugun aurrerapauso bakoitzak gure itxaropena elikatzen du. Norabide egokian lanean ari gara eta horrek gure indarra hauspotzen du.

Urte hasieran **Estrasburgoko auzitegiaren aldetik** berri ezezkorra jaso genuen. Izan ere, **martxoaren 2an** auzitegi horrek **urruntzearen aurkako helegitea tramiterako ez zuen onartu**. Hala ere, Giza Eskubideen Auzitegiak gure senide preso bakoitzak sufritzen duen desherriratzearen inguruko balorazioa egin beharko duela esan zuen, kasuz-kasu. Helegitea 2013an aurkeztu zuten Alex Zobaran, Jone Lozano eta Urko Labakak, hirurak Lyongo espetxean preso zirenean. Erabaki hori eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiak helegite hauek ez tramitatzeko erabili dituen arrazoiak salatu genituen. Jasotako bisita eta egindako dei kopuruak ez dute egun euskal preso politikoen senide eta lagunek sufritzen dugun dispertsio politika leuntzen. Gure senide presoarekiko dugun maitasun eta pertseberantziak milaka kilometro bidaiatzera eragiten digu ordu gutxitako poztasuna jasotzeko.

Aldiz, **urriaren 6an**, Europako Parlamentuak **Bergeron izeneko txostena** onartu zuen atzo 474 aldeko botoekin eta 109 kontrako botoekin. 34 abstentzio zenbatu ziren. Txostenak presoen urruntzea salatzen du, «haien senitartekoei ezarritako zigor gehigarria» delako, eta kide diren estatuei eskatzen die gaixotasun larriak dituzten presoen kasuan «haien zigorrak berriro aztertzeo aukera aintzat hartzeo». Onartutakoa ez da txosten legegilea, eta, hortaz, ez da estatuek derrigorrean bete beharrekoa, baina lehenengo urratsa da Europar presoen giza eskubideak arautzeko bidean.

Testuinguru honetan, Etxerat Elkarteak ongi baloratu zuen Europako Parlamentuak txosten hau onartzea, espainiar eta frantziar estatuek eskubideen urraketak mantendu nahian baliatzen duten blokeoa gainditzeko Europa mailako eragile politiko zein giza eskubideen aldeko erakundeekin aurten egiten ari garen lanaren ildo beretik doalako, alegia, presoen urrunketarekin bukatzeko beharra eta ondorio lazgarrienetako bat, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten euskal preso politikoen egoera.

Nabarmentzekoa da gainera Espainiako Alderdi Popularreko eurodiputatuek bakarrik gelditu zirela txostenaren kontra Europako Alderdi Popularraren baitan, talde honen gainontzeko europarlamentariak aldeko bozka eman bait zuten. Ciudadanos eta UPyD-ko ordezkariak ere, ALDE izeneko gainontzeko taldekideak ez bezala, kontrako bozka eman zuten. Euskal Herria mailan, Akordio Sozialaren baitan konpromisoa hartu duten eragile politiko, sindikal eta sozialei, Europako Parlamentuak onartutako txostena bere gain

hartu eta horren berri ematea eskatu genien, beste kontaktu erronda batean.

## **Euskal Herrian**

### **Dispertsio politikarekin bukatzeko konpromisoa hartu du Hondarribiako Udalbatzak**

Otsailaren 24an dispertsio politikaren aurkako jarrera erakutsi zuen Hondarribiako udalbatzak, Mirentxin Gidari taldeak aurkeztutako mozio bati erantzunez. 2016ko azaroan, bisita egin ondoren, Huelvako espetxetik bueltan zetozela gertatu zen auto istripuaren harira aurkeztu zuen mozioa Mirentxin Gidari taldeak. EAJ, Abotsanitz, EH Bildu eta PSE-EE udal taldeek (guztiak PP izan ezik) elkartasuna adierazi zieten istripua jasan zutenei eta presoan urruntze eta dispertsio politikaren aurka agertu ziren, zigorren birgizarteratze helburuaren aurkako delako eta espetxeen lege organiko orokorreko 12. artikulua, zigortuen deserrotze soziala ekiditeko beharra azaltzen duena, betetzen ez duelako. Hondarribiako Udalbatzak euskal preso guztiak euskal espetxeetara hurbil ditzatela eskatu zuen baita ere. Udalbatzak hartutako erabaki honen berri Espainiako Espetxe Zuzendaritzari, Espainiako eta EAeko Arartekoei eta Eusko Jaurlaritzaren Gogora erakundeari emango zietela gehitu zuten.

### **Dispertsioarekin bukatzea aho batez exijitu du aho batez Ondarroako Udalbatzak**

Martxoaren hasieran euskal preso politiko ondarrutarra den Asier Badiola bisitatu ondoren bi ondarrutarrek auto istripua jasan zutela eta, Ondarroako Udalbatzak dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu zuen aho batez martxoaren 15ean (EH Bilduren zortzi bozka eta EAJren lau bozka). Ondarroako Udalbatzak pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea exijitu zuen, aldiz dispertsioa eta urruntasunak presoan senideak kaltetu eta oinaze gehitu batera zigortzen ditu. Udalak, halaber, dispertsio politikarekin amaitzeko eskaera Frantzia eta Espainiako gobernuei eta baita espetxe erakundeetako arduradunei helaraziko zitzaie la onartu du. Ondarroako Udalbatzak esan zuenez, sakabanaketa politikak arrazoi politikoei erantzuten diela eta horren kalteak ez dituela soilik presoak jasaten. Politika horrek zuzen eragiten

die senide eta lagunei ere. Beharrezkoa ez den zigor bat da; politika horrek ez du inoiz zentzurik eduki eta ez dio mesederik egin preso diren pertsonen errotze sozialari.

### **Agerraldia Gasteizko Parlamentuan**

Dispertsio politikak adingabeengan dituen ondorioak azaltzeko Etxerat Elkarteak agerraldia burutu zuen Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean martxoaren 8an. Agerraldian, Patricia Velez Etxerat Elkarteko bozeramailearekin batera, Olatz Iglesias eta Maider Viso presoek senideak izan ziren Legebiltzarrean. Maider eta Olatzek haien lekukotzak eman zituzten.

### **Dispertsioa eta urruntzarekin bukatzea exijitu du aho batez Lesakako Udalbatzak**

Apirilaren 2an euskal preso politiko lesakarra den Mikel San Sebastian Gaztelumendi Murtziako espetxean bisitatu ondoren bere lagun batek auto istripua jasan zuela eta, Lesakako Udalbatzak apirilaren 7an dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu zuen aho batez, Geroa Bai eta EH Bilduko zinegotzien botoekin. Istripua izan zuen pertsona ere lesakarra da. Mozioak zioenez, «argi dago istripu hau dispertsio politikaren ondorio bat dela. Martxan dagoen dispertsio politika hau presoak ez ezik beraien lagun eta senideak ere zigortzen ditu. Lesakan egoera hau astebururo astebururo lagun aunitzek pairatzen dute, bidaiaro beraien biziak arriskuan jarritz». Onartutako mozioak zioenez, «Udaleko batzarrak dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatzen du, senideak kaltetu eta oinaze gehitu batera zigortzen baititu». Era berean, Udal batzarrak pertsona guztien giza eskubideen errespetua exijitu zuen eta akordio hau Frantzia eta Espainiako gobernuei helaraziko zitzaien, baita Espetxe Erakundeetako arduradunei.



### **Urruntzearekin bukatzeko adierazpena onartu du Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak**

Maiatzaren 10ean, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak bere kezka azaldu zuen Ander Mujika presoaren senideek izandako istripuagatik eta, bide batez, urrunketa politikaren desaktibazioaren aldeko aldarrikapena egin zuen, “presoen eta beren senide eta lagunengan eragiten duen sufrimendu eta zigor gehigarriarekin bukatzeko”. Adierazpena, EAJ, EH Bildu eta Irabazi Donostiako ordezkarien aldeko bozkekin onartu zen. PSEko ordezkariak ez zen bileran egon eta PPK aurkako bozka eman zuen, Ander Mujikaren senideek sufritutako istripuan kezka azaltzearen puntuan abstenituz. Euskal presoek urrunketak eta berak sorrarazitako eskubide urraketen inguruan jarduten zuen adierazpenak: “Sufrimendua sortzen duten inposatutako arriskuek ondorio larriak dituzte, eta istripuak etengabe suertatzen dira, urteak 4 hilabete dituen dagoeneko bost dira jazotakoak. Azkena Ander Mujika donostiarra bisitatzera zihoazen senideek pairatu zuten; 550 kilometrotara dagoen Saint Martin de Re (Frantzia) espetxerako bidean izan zuten istripua gurasoek, anaiak eta 5 urteko ilobak apirilaren 13an”. Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzordeak urruntze politika honek ez duela zentzurik azpimarratu zuen eta preso diren pertsonen errotze sozialari, euren senide eta lagunak kaltetuak direlarik mesederik egiten ez diola aipatzen zuen. Adierazpenean ere “ETAren behin betiko etenaren ondoren, bere armagabetzea barne, egoera hau luzatzeak” ez duela inolako zentzurik jaso zen.

### **Euskal presoak Euskal Herrira gerturatzea eskatu dute Bizkaiko Batzar Nagusiek**

Ekainaren 9an, haien senide-lotura bermatze arren, euskal preso politikoak Euskal Herritik gertu dauden espetxeetara ekartzea eskatu zute Bizkaiko Batzar Nagusietan EAJ, EH Bildu, Podemos eta PSE alderdiek. PP eta Talde Mixtoa aldiz, proposamenaren aurka azaldu ziren. Onartutako testean, presondegietako Lege Orokorra betearazi dezaten eskatu zen eta aldi berean, presondegietako urruntze politikarekin desadostasuna agertu zuten aipatuko lau alderdiek. ETAk behin betiko jarduera armatua utzi zuenetik aro berria zabaldu delarik, espetxeetako politika berria beharrezkoa dela uste dute alderdi hauek, errotze soziala eta familiarra dagoen tokietatik urrun zigorrak betetzea ekiditen duena hain zuzen ere. Horrez gain, senitartekoekin erlazioa

erraztu behar zaie, adin txikikoen ongizateari begira eta azken hauek gurasoekin egoteko duten eskubidea bermatze aldera.

### **Ondarroako Udalak Ibon Iparragirrereren askatasuna exijitu du**

Ekainaren 9an Ondarroako Udalean ordezkaritza duten EH Bildu eta EAJk, Ibon Iparragirre euskal presoaren egoera larria ikusita, aske uzteko beharrezkoa duten guztia egiteko eskatu zien erakundeei. Bestalde, Ibon Iparragirreri buruz onartutako azken mozioan adostu zen modura, bere egoeraz arduratzeko presoari bisita egiteko konpromisoa hartu zuten bi alderdiek. Bestalde, preso gaixo larriak dituzten herrietako alkateekin batera Espainiako Audientzia Nazionaleko Jose Luis de Castro epaileari “urgentziatzeko bilkura” bat eskatzea ere adostu zuten.

### **Ireki dinamikak lantokiz-lantoki 80.000 sinadura lortu ditu euskal preso eta iheslariak etxerako bidean jartzeko**

Ekainaren 17an aurkeztu zituen Gasteizen ekitaldi batean. Etxerat elkarteak ekitaldi honetan parte hartu zuen, elkartasun froga hori biziki eskertuz.

### **Dispertsioarekin amaitzea exijitu du, aho batez, Hernaniko Udalbatzak**

Ekainaren 3an preso politiko hernaniarra den Asier Ormazabal Teruelgo espetxean bisitatu ondoren bi lagunek auto istripu larria jasan zutela eta, Hernaniko Udalbatzak dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu zuen aho batez ekainaren 21ean (EAJ, EH Bildu, Orain Hernani eta PSE-EEren bozkekin). Pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea exijitu zuen, dispertsioa eta urruntasunak presoen senideak kaltetu eta oinaze gehitu batera zigortzen baititu. Udalbatzak, halaber, dispertsio politikarekin amaitzeko eskaera Espainiako Gobernuari eta baita gizarteari helaraziko diela onartu zuen. Hernaniko Udalbatzak sakabanaketa politikak egun inongo zentzurik duen eskubide urraketa bat dela azpimarratu zuen, politika horrek zuzen eragiten baitie senide eta lagunei, beharrezkoa ez den zigor bat erantsiz.

*Etxerat*

### **Urrunketaren amaieran lan egiteko konpromisoa berretsi du Donostiako Udalak**

Ekainaren 29, Donostiako Udaleko osoko bilkurak maiatzaren 23an Ander Mujika preso donostiarren senideek izandako istripuagatik harturiko erabakia, hitzez hitz berrestea erabaki zuen Asier Ormazabal presoaren bi lagun donostiarrek sufritutako ezbeharra dela eta. Bertan Donostiako Udalak urrunketa politikaren desaktibazioa eskatu zuen, finean presoan eta beren senide eta lagunengan eragiten duen sufrimendu eta zigor gehigarriarekin amaitu ahal izateko. Erakunde adierazpena EAJ, EH Bildu, Irabazi Donostia eta PSE-EEren aldeko bozkekin atera zen, PP abstenitu egin zelarik. Donostiako Udalak Espainiar Gobernuari zein gizarteari erakunde adierazpen honen berri emango ziola gehitu zuen.

### **Eusko Legebiltzarrak larri gaixo diren presoan askatasuna eskatu du**

Ekainak 29an Eusko Legebiltzarrak espainiar Gobernuari eta Espetxe Erakundeei, Legez Besteko Proposamen baten bitartez, gaixotasun sendaezin larriak dituzten presoak espetxetik ateratzea ahalbideratzea eskatu zien, arrazoi humanitario eta duintasun pertsonala errespetatuz. Etxerat Elkarte, Foro Sozial Iraunkorreko partaide garen heinean, presente izan zen sesioan. Elkartetik positiboki baloratzen genuen ekinbidea. EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin-Podemos legebiltzarkideen botoekin, eta PPko ordezkarien ezetzarekin, Espetxe Erakundearen 3/2017 instrukzioa indargabetzea eta Barne Ministroak adierazitako irizpidea zuzentzea eskatu zuen Legebiltzarrak, “zeinaren arabera gaixo dagoen presoei ez zaien baldintzapeko askatasuna emango bi hilabeteko epean hiltzeko berehalako arriskua ez badago, irizpide horrek legalitate eta humanitate oinarritzko printzipioak urratzen dituelako eta halako erabakia ustez hartu beharko lukeen pertsonal medikuaren printzipio deontologikoen kontra doalako”. Legebiltzarrak espainiar Gobernu eta bereziki Espetxe Erakundeei espetxe populazio osoaren bizitza, segurtasun eta osasun eskubideen errespetua babes dezatela eskatu zien, “botere publikoek sentsibilitate berezia adierazi behar dutelako espetxe politika zuzendu behar duten printzipioak eta, zehazki, Espetxe Erregelamenduaren 104.4 artikulua aplikatzean”. Legez Besteko Proposamenak espainiar Gobernuari “espetxe-politikaren orientazioa adostu eta euskal erakundeekin partekatzea” eskatu zion ere.

*Etxerat*

### **Iker Lima presoaren lagunari elkartasuna adierazi eta dispertsioarekin amaitzea exijitu du Galdakaoko Udalbatzak, PP-ren kontrako botoarekin**

Uztailaren 3an, Iker Lima Galdakaoko euskal preso politikoaren lagun batek ekainaren 24an Huelvako kartzelan bisita egin ondoren jasandako istripuaren harira, Galdakaoko Udalaren ohiko osoko bilkuran istripua salatu eta istripua jasan duenari elkartasuna adierazi zuen, eta euskal presoan urrunketarekin behingoz bukatzeko mozioa onartu zuen EAJ, EH Bildu, Galdakao Orain, Usansolo Herria eta Irabaziko zinegotzien botoekin, PSE-EEren abstentzioarekin eta PPren kontrako botoarekin. “Edozein zuzenbide estatu demokratikori dagokion giza-eskubideekiko begirune zorrotzarekin bat eginik, indarreko legea betetzeko benetako pausoak eman daitezela eskatu, eta horren haritik, euskal preso guztiak euskal kartzeletara hurbil ditzatela eskatzea Espetxe Erakundeari, oraingo egoerak zigor erantsia ekar ez diezaien, ez haiei ezta haien senideei ere” irakurri zen mozioan. Udalbatzak hartutako erabaki honen berri emateko konpromisoa hartu zen, bai Espainiako Espetxe Zuzendaritzari, Espainiako eta EAEko Arartekoei eta Eusko Jaurlaritzaren Gogora erakundeari.

### **Presoak gerturatzeko Nafarroako 19.532 langileen sinadura entregatu dizkio Foro Sozialak Parlamentuko presidenteari**

Uztailaren 3an, Nafarroako Parlamentuko presidentea den Ainhoa Aznarezekin bildu zen Foro Soziala, presoak gerturatzeko helburuarekin lan munduan Ireki dinamikaren baitan jasotako 80.299 sinadurak emateko. Horietako 19.532 sinadura Nafarroako langileenak direla nabarmendu izan zioten. Etxerat Elkarteak, Foro Sozial Iraunkorreko partaide garen heinean, presente izan zen bilera honetan. Preso eta iheslarien itzulerari buruzko IV. Foro Sozialaren ondorioen berri eman zion Foro Sozialak Aznarez andeari. Aznarez andereak arreta handiz entzun ditu Foro Sozialak egindako gogoetak.

### **Sindikatuak Espainiako Gobernuari eskatu diote larri gaixo diren presoak askatzeko irizpideak aldatzeko**

EAEko gehiengo sindikalak euskal gizarteari adierazi zion ekainaren 29an Eusko Legebiltzarreko parlamentarien %88ak espetxe politikaren inguruan hartutako akordio garrantzitsuari, eta, bereziki,

*Etxerat*

larri gaixo dauden presoek ezarritako politika dagokionari, haien onespina ematen ziela. Adierazpena ELA, LAB, UGT, Steilas, ESK, Hiru, EHNE Konfederazioa eta Etxalde Mugimenduak (idazki baten bitartez CCOO atxikimendua adierazi zion adierazpenari) egin zuten, Bilbon egindako ezohiko azaltze batean, Foro Sozial Iraunkorraren bultzadari esker.

### **Presoak gerturatzeko 80.299 euskal langileen sinadura eskura eman dizkio Foro Sozialak Eusko Legebiltzarreko presidenteari**

Uztailaren 10an, Eusko Legebiltzarreko presidentea den Bakartxo Tejeriarekin elkartu zen Foro Sozial Iraunkorra, presoak gerturatzeko helburuarekin lan munduan Ireki dinamikaren baitan jasotako 80.299 sinadurak emateko. Honekin Foro Sozialak amaitutzat eman zuen preso diren pertsonen inguruan egindako IV. Foro Sozialaren ondorioak aurkezteko bilera-errondari. Aurrekoan Nafar parlamentuko presidenteari bezala, Eusko Legebiltzarrekin ere bide orri bat osatzeko borondatea adierazi genuen. Armagabetze prozesuaren atala itxia delarik, gatazkaren konponbidearen beste ataletan murgiltzeko garaia denaren irakurketa berbera konpartitzen dugu.

### **Urrunketaren desaktibazioa exijitu du Berangoko Udaltzako**

Asier Garcia euskal preso politikoaren bikote berangoztarra irailaren 16an 706 kilometrotara dagoen Badajozeko espetxera bisita egitera zihoan eta trafiko-istripua jasan zuela, Berangoko Udalak irailaren 27an ospatutako osoko bilkuran dispertsio politikaren eta urruntzearen berehalako desaktibazioa eskatu zuen "senideak kaltetu eta oinaze gehitu batera zigortzen baitituelako", EAJ, EH Bildu, Denok Batera, zinegotzi ez atxikitua eta PSE-EEren aldeko 11 botoekin eta PPren kontrako botoarekin. Etxerat Elkarteak proposatutako mozioan, "dispertsio politika aktibo mantentzen da, eta orain eragin dituen zigorgabetasun berarekin gehitu ditzake biktimak" aipatzen zen, "urruntze eta sakabanatze politikak ez du sekula zentzurik izan eta ez dio mesederik egin preso diren pertsonen errotze sozialari, senide eta lagunak kaltetu ditu soilik" adieraziz. "ETAren behin betiko etenaren ondoren, egoera hau luzatzeak ez du inolako zentzurik. Orain, aldatzeko aukera dugu, oinaze guztiak kontuan hartzeko unea da, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzeko eta etorkizun

*Etxerat*

hobeago bat eraikitzeko momentua, dispertsioari amaiera emateko ordua da. Senideen sufrimenduarekin amaitzea beharrezkoa da". Berangoko Udal Batzarrak "persona guztien giza eskubideen errespetua" exijitu zuen eta bide batez akordio hau Frantzia eta Espainiako gobernuei helaraziko zitzaizela esan zuen, baita Espetxe Erakundeetako arduradunei.

### **Gaixo dauden presoek askatasuna eskatu du Nafarroako Parlamentuak**

Azaroaren 9an, Nafarroako Parlamentuaren gehiengo zabalak onartu zuen gaixotasun larriak dituzten presoek indarrean den legedia aplikatzearen aldeko ebazpena. Onartutako testuan parlamentuak txosten mediko egiaztatuen arabera gaixotasun larria eta bizi-pronostiko laburra edo pairamen sendaezinak dituzten presoek kondenak arrazoi humanitarioengatik berrikusteari buruz indarrean dagoen Estatuko eta nazioarteko legeriaren oinarritzko zioak eta printzipioak sostengatu zituen. Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu, PSN eta I-Eren legebiltzarkideek babesa jaso zuen ebazpenak, eta aurka bozkatu zuten UPNk eta PPK. UPNk ordezteko zuzenketa bat aurkeztu zuen "indarrean dagoen estatuko eta nazioarteko legeria errespetatzeko" eskatuz, eta bide batez "arrazoi humanitarioengatik kartzela zigorra arintzeko protokolo bat" proposatuz. Etxerat Elkarteak presente izan zen sesioan eta oso positiboki baloratu genuen ekinbidea.

### **Nafarroako sindikatu guztiak, gaixo dauden presoek irtenbide humanitarioa ematearen alde**

Gaixotasun larriak dituzten presoentzat irtenbide humanitarioa ematea eskatzen zuen mozioa onartu zen azaroaren 9an Nafarroako Parlamentuan. Foro Sozial Iraunkorraren ekimenez, mozio hori babestuz Nafarroako sindikatu guztiak bat egin zuten mozio horrekin. Hauek dira sindikatuak: UGT, CCOO, ELA, LAB, EHNE, Steilas, ESK, Hiru, Solidari eta CGT.



## **Dispertsioaren kontrako adierazpen instituzionala Hernaniko udaletxean**

Abenduaren 29an, dispertsioaren aurkako adierazpen instituzionala onartu zuen Hernaniko Udalbatzak. 2017ko urtean, espetxe politika bereziak Hernaniko bi presori eragin die. Azkena Marta Igarri preso hernaniarra bisitatu ostean 3 hernaniarrek pairatu zutena abenduaren 27an; 564 kilometrotara dagoen Castello I espetxetik (Castelló) bueltan izan zuten istripu larria. 3 lagunetik 2k ospitaleratu egin behar izan dituzte istripuaren oinazeak direla eta. Batek 6 saihets apurtuak ditu eta 2 orno zanpatuak eta besteak, aldiz, bularrezurrean haustura du. Bere 2. puntuan, « Hernaniko Udalak eskatzen du urrunketa politikaren desaktibazioa, presoan eta beren senide eta lagunengan eragiten duen sufrimendu eta zigor gehigarriarekin bukatzeko ».

## **Frantziar estatuan**

### **Frantziako Espetxe Zaintzako kontrolatzaileak bere urteko txostena argitaratu du, urrunketa salatuz**

Adeline Hazan Frantziako Espetxe Zaintzako kontrolatzaileak bere urteko txostena argitaratu zuen martxoaren 22an. Beste puntu askoren artean, euskal presoak sistematikoki beren senideengandik urrunduak direla eta horrek familiekin lotura mantentzeko duten eskubidearen kontra jotzen duela. Oso positiboki baloratu genituen txosten honen gomendioak.

Azken aldian, euskal presoek senideekiko harremanak izateko duten eskubidea urratua ez dela adierazteko justifikazio faltsuak erabili zituzten frantziar zein espainiar espetxe arduradun eta salbuespen politiken defendatzaileek eta horiek argudiatzeko guk, senide eta lagunok, egiten ditugun bisiten kopuru eta zerrendak erabili zituzten.

Baina interes politikoengandik at aztertzen direnean gure eskaerak, hau da, soilik eskubideen ikuspuntutik azertuak direnean agerian gelditzen dira eskubide urraketa larriak, eta horien justifikazio eza demostratzen du txosten honek. Institutio garrantzitsu batek arrazoia ematen baitigu, ez guri senideoi, eskaera horiek defenditzen dituen gizartearen parte zabal bati baizik.

*Etxerat*

### **Ipar Euskal Herriko delegazio bat Parisen egon da**

Uztailaren 10ean, euskal jendartea bere osotasunean (hautetsiak, jendarte zibila) irudikatzen zuten 20 pertsonako delegazio batek, tartean Etxerat Elkarte, Parisera eraman zuen Euskal Herriaren ahotsa. Bake prozesuan aitzina joateko borondatea adierazi zuen delegazioak, Frantziar agintariek euskal presoen gaian duten inplikatzearen beharra azpimarratuz. 8 bilkura egin ziren aginte exekutiboarekin (justizia ministroa), legegilearekin (talde parlamentari ezberdinak eta Legebiltzarreko presidente ordea), baita ere giza eskubideen defentsan lan egiten duten erakunde independente batzuekin ere (Giza eskubideen aholku batzordearekin, eskubideen defendatzailearekin, askatasunik gabeko guneen kontrolatzaile orokorarekin) eta magistraturaren sindikatuarekin. Egunaren bukaeran, delegazioak balorazio oso baikorra eginen zuen, entzunak izan baitziren, bildutako eragileen ahotatik lanerako perspektibak aurreikusten zirelako seinalatuz.

### **Dispertsioak sortzen dituen urraketak salatzeko 52 euskal preso senideek kexak bidali dituzte “Défenseur des Droits” izeneko bulegora**

Urrian zehar, Frantziar Estatuan dispertsio politika sufritzen duten euskal preso politikoen senide eta gertukoengan sortzen dituzten arazoak salatzeko asmotan, eta horren ondorioz giza eskubideen urraketak eta senideekiko lotura afektiboa mantendu nahian, behin eta berriro ematen ari diren arazoak direla eta, frantziar Estatuko "Défenseur des Droits" izeneko bulegoari kexa sorta bidali zitzaizkion. Kexa horiek administrazio publikoak, zehazki frantziar Estatuko Justizia Ministeritzak egindako urraketetan oinarritzen ziren eta egun Frantziako espetxeetan sakabanaturik dauden 52 euskal preso senideek pausatu zituzten.

### **Frantziar estatuko espetxeen bira**

Azaroaren 16etik abenduaren 9ra, Bagoaz, Sare eta Etxerateg osaturiko delegazio batek Frantziar estatuko kartzelen bira egin zuen. 3 aste horietan, euskal preso politiko dauden espetxe gehienetara joan ziren : Mont-de-Marsan, Lannemezan, Muret, Tarascon, Arles, Roanne, Uzerche, Poitiers-Vivonne, Châteauroux, St Maur, St-Martin

*Etxerat*

de Ré, Rennes, Alençon, Clairvaux, Réau, Fleury, Fresnes ; eta Frantziako 8 hiri handietara : Toulouse, Marseille, Lyon, Poitiers, Nantes, Lille, Strasbourg, Paris. Leku guzti horietan, tokiko eragile ezberdinekin bildu ziren, eta prentsaurrekoak edota mintzaldiak burutu zituzten.

Ahal zen leku guztietan, herrialdetako Espetxe Administrazio ordezkariekin bildu ziren ere, tokiko espetxeetako senideekin batera. Parte hartu zuten familiarrek bai egindako lan handia, bai leku ezberdinetan izandako harrera ona asko eskertu eta txalotu zuten. Bira abenduaren 9an bukatu zen Parisen Bake Artisauek antolatu zuten manifestazio handian.